

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Garapen Estrategikoaren eta Etxebizitzaren Zerbitzua

Errebokatzea 71542311Y NANA duen onuradunari kalteberatasunagatik emandako laguntza gehigarriaren zati bat, heriotzaren ondorioz

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko otsailaren 27an ohiko bilkuran:

Lehen a. – Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko maiatzaren 24ko erabakiaren bidez, 2025eko ekainaren 4an hildako onuradunari (NAN zenbakia: 71542311Y) emandako 1.975,97 euroko laguntza baliogabetzea —erabaki horien bidez emandako kopuruaren ehuneko 50—, eta prozedura amaitutzat ematea gerora sortutako arrazoiak direla eta, eta jarduketak artxibatzea.

Bigarren a. – Akordioa udalaren webgunean eta ALHAOn argitaratzea, eta ohartaraztea ezen haren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitekeela administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, aldez aurretik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu berraztertze errekurtsoa espresuki edo presuntzios ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik, bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoko arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko martxoaren 13an

Alkate-lehendakaria

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA